

TOR-EKO JAURETXEA

Jauretze honen jatorria Garza-tarren leinuarekin lotuta dago. XIV. mendean horien ondorengo zuzenen eskutan egon zen jabetza, azken jabera arte: María de la Paz Taboada de Andrés y Zúñiga andrea. 1998an Lugoko Aldundiari dohaintzan eman zion arte. Museo bihurtu ondoren, 2006ko uztailaren 13an bisitarientzat ikusgai jarri zuten.

Eraikina XVIII. mendearen azken herenekoa da funtsean, lehenagoko arrastoren ere baduen arren. Napoleonen tropek su eman eta gero, konpondu eta neurri batean birgaitu egin zen. Barroko estilokoa da, Galizian aspalditik dagoena, baina neoklasizismoko sentimendu estetikoaren ukitu batzuk ditu. Horiek soiltasunean, simetrian eta ordena klasikoen erabilera antzeman daitezke.

Itxura arkitektonikoaz gain, jauretsera egiten den bisitaldian bertako areto eta gela guztiak ikus daitezke, jatorrizko altzariekin eta mendeetan zehar familiako kideek gorde zituzten bilduma artistikoekin. Beraz, Aro Moderno eta Garaikideko Galiziako nobleziaren bizimoduaren pribilegiozko lekukotasuna da.

Jauretze honetan 17 gela bisitatu daitezke, logelak, jangelak eta aretoak tartean direla. Gehienek jatorrizko altzariak mantentzen dituzte eta lan artistiko ugari biltzen dituzte: pintura, eskultura eta kronologia eta jatorri oso anitzeko luxuzko artea. Interesgarriak dira, era berean, Galiziako mapa bat, Domingo Fontán-ek egina, eta 1757ko txosten-plano bat, Agustín Baamonde eskultoreak egina, Lugoko Campo Castillo plazako marrazki batekin.

Jauretze honetako gelen artean, batez ere azpimarratu behar dira: Arma Aretoa, Iparraldeko aretoa, Bulegoa, Joko aretoa, Eguerdiko aretoa, Logela nagusia eta Jantoki nagusia.

Arma Aretoa (1)

Bi armari eta panoplia multzo bat ditu, ezpata eta suzko armekin. Horien artean, espingarda bat nabarmentzen da. Areto honetako altzarien artean, arreta deitzen dute Erdiko mahaiak, gaztain egurrez egina, zizelkatutako kaxoiekin; pinturrekin dekoratutako armairuak eta pertsonak garraiatzeko litera batek.

Iparraldeko Aretoa (4)

Gela honetan oleoz egindako zenbait erretratu daude zintzilik, horien artean jauretzeko azken jabearena, M.^a Paz Taboada andrea, beraren guraso eta birraitonenak ondoan dituela. Familiako beste erretratu batzuen artean, Salamankako apezpiku izandakoarena ere badago, José María Varela de Temes (XIX. mendea), Cándido Garabal-ek egina.

Zenbait beira-arasetan luxuzko eta dekorazio artearen bilduma desberdinen multzo bat dago, balio handikoak (bitxiak, abanikoak, pipak, faltrikerak, erlikia-ontziak) eta oso jatorri desberdinetakoak.

Erdiko mahaietan, Daniel Zuloagak eskuz margotutako zeramikazko ontzi bat nabarmen kokatuta dago.

Areto hau gonbidatuen geletako batekin (5) lotuta dago, (bertan Uxío Novoneyra poetak ostatu hartu ohi zuen), eta kaperarekin (6), iruditeriadun erretaula bat daukan gela. Gordetzen den inskripzio baten arabera, erretaula honen polikromia, paretetako dekorazio-pinturarekin batera, 1909an egin zuen Monforteko José Casanova Cortiñas margolariak.

Bulegoa (7)

Altzarien artean Bargaseko estilora egindako egurrezko altzaria azpimarratu behar da, idazmahai eta enpotratutako armairu batekin ondo datorrena. Armairu horretan Sagardelos-eko ontziteri bat gordetzen da, José María Varela kanonigoarena izandakoa. Bilduma bibliografiko garrantzitsua ere aipagarria da, XVI eta XVII. mendeetako liburuekin. Paretak apaintzen dituzten margoen artean bi oleo aipatuko ditugu: *Amabirgina haurrarekin* eta *Judasen traizioa*, Karmengo Ama irudikatzen duen erliebezko koadro bitxi batekin batera.

Joko-aretoa (9)

Aretoaren Erdiko aldean dagoen antzinako billar mahaiagatik darama izen hori. Altzarien artean, hauek nabarmentzen dira: neurri handiko egurrezko armairu bat, koltxoientzat erabiltzen zena; paisaiak eta monumentuak oleoz margotuta dituen bionbo bat, eta zenbait tresillo, sofa, diban eta mahai joko. Toki berean, zutikako ordulari bat dago, Will Dorrel ingeles etxekoa, urre koloretan ekialdeko motiboz apaindutako kutxarekin.

Areto honetako paretetan zintzilik dauden koadroetatik hiru oleo nabarmentzen dira: María Magdalena, Asisko San Frantzisko eta Santu frantziskotarrak eta Guadalupeko Amabirjina irudikatzen dituztenak.

Areto hori andrearen logelarekin (10) lotuta dago. Izen hori daraman jauretxeko azken jabeak erabili zuen gela delako. Bertan eskuz margotutako konketa bat dago, eta baita taula gaineko bi oleo ere: *Deikundea* eta *San Joseren ametsa* Landeira-k sinatutakoak, XVII. mendeko margolaria.

Eguerdiko aretoa (12)

Tximini bat dauka eta paretetatik neurri handiko hiru ispilu daude zintzilik. Talavera eta Sargadelos zeramikarekin batera, garai desberdinetako pintura laginak ere baditu: kobre gaineko oleo bat, *San Lorenzo*, Tiziano-ren kopia eta Agrassot-ek sinatutako beste hiru oleo: *Paisaia*, *Famili Santua* eta *Ecce Homo*. Aipagarriak dira Londreseko Collard & Collard etxeko piano-fortea, eta baita pianola bat eta klabiorgano bat ere, azken hau Londreseko Longman & Broderip etxekoa.

Logela nagusia (13)

Hiru arkupe neogotiko dituen egurrezko egiturak lo egiteko tokia eta egongela bereizten ditu gela honetan. Logela horretan altzarien artean, XVI. mendeko dosela daukan ohe bat azpimarratu behar da, italiar errenazimendu estilokoa eta Napolitik etorria, santu-zurez egina eta brontzezko inkrustazio, plaka eta kalatuz egina. Ohe horren alde batera, sehaska bat dago, marketeriazko apaingarri xumeekin. Beste aldera, ingeles motako komun bat dago, eskuz margotua, Trent etxekoa.

Egongoleko altzarien artean aipatu behar dira, lau pertsonantzako sofa obalatu, armairu bat, idaz-mahai bat.

Korridore zabal batek (15) Bargaseko estilora egindako zenbait egurrezko altzari eta 1759ko kutxa bat dituenak, zenbait gela lotzeko balio du, horien artean:

Jangela nagusia (17)

Erdiko mahai handi baten gainean José María Varela Konpostelako kanonigo jaunarena izan zen baxera bat dago.

Gelako izkiñetako batean tximinia bat dago, berriki eraikitakoa eta brontzezko eta kobrezko piezekin apaindua. Basgasko estilora egindako altzari bat, XVIII. mendeko arkoi bat eta Alfredo Delege markako ordulari bat daude gela honetan. Bertako paretetan ehiza eszena batekin tapizea eta zenbait oleo ikus ditzekegu. Horien artean aipagarriak dira Payá kardenalaren erretratuak, José María Varela kanonigo jaunarenak eta oleo bat, Ameriketatik etorria, Mirarien Amabirjina eta Francisco José de Quiroga y Losada boto ohiaren erretratu bitxia iruditzen dituenak, Amabirjinaren aurrean belaunikatua.

Jauretxeko gelekina batera galeria bat (18) ere badago. Horretatik paronamika miresgarria ikus daiteke, galiziako harri lauekin egindako labirinto original bat lehen planoan duelarik.

Eranskinak

Erantsitako eraikin batzuetan, berriki egokitutakoak, gela hauek daude: sutegi bat, oilategi bat, zalditegiak (bertan XIX. mendeko lau zaldi-gurdi, eta zaldi gainean ibiltzeko zenbait zela deigarriak dira) eta larrutegi bat.

Liburutegia

Bertan 2.948 ale gordetzen dira guztira, 2.154 izenbururekin, XVI. mendetik XX.en mendera arteko lanekin.

Tor-eko jauretxearen koordenatuak (*datum* ETRS89)

UTM: 29 617558 4713921

geografikoak: 42°34'7,49"N 7°34'3,74W

hamarrekoak: 42.5687479737 -7.5677044448

Ordutegia

Asteartetik igandera, bisita gidatuak 11,00etan, 12,30etan, 16,30etan eta 18,00etan.

Astelehenetan itxita

Jauretxea egun hauetan itxita egongo da:

urtarrilaren 1ean (Urte berri), lhauteri asteartean,

maiatzak 22 (Sta. Rita) eta abenduaren 24, 25 eta 31n.

Sarrera doan

Tor-eko jauretxea

San Xoán de Tor

27591 Monforte de Lemos (Lugo)

Tfnoa.: 982 165 534 / pazodetor@museolugo.org

www.museolugo.org